



Andoaingo hondakin organikoaren bilketarako edukinontziei pedala gehituko zaie

- **Edukinontzi marroien egokitzapen lanak irailak 14 eta 20 bitartean burutuko dira, eta erabilera erraztea dute helburu**
- **Udaran zehar errefusaren edukinontzi grisei ezarri zaie pedala, honen irekiera/itxiera sinplifikatuz**

Azken asteetan edukinontzi bidezko hondakinen bilketa sisteman egokitzapen eta hobekuntza batzuk txertatzeari ekin zaio. Abuztuan zehar errefusaren edukinontzi grisei pedala ezarri zaie. Modu honetan, pedalak edukinontziaren irekiera eta itxiera errazten du.

Irailak 14-20 bitartean, bigarren fasea burutuko da, eta Andoaingo hondakin organikoaren bilketarako edukinontzi marroiei ere pedalak gehituko zaizkie. Egokitzapen lanak dagoeneko hasi dira, eta denbora tarte honetan edukinontziak ordezkaturako dira eta behin behineko 1000 litroko ontzi berriak ezarri dira, txartelik gabe irekiko dira aldaketak irauten duen bitartean.

Hartutako erabakiaren helburua zera da: andoaindarrei hondakinen eta bereziki organikoaren bereizketa eta bilketa erraztea, honenbestez, edukinontziak ireki eta ixtea erosoagoa bilakatuko duten pedalak gehituz.

Behin behineko egoerak astebeteko luzapena izango du, eta Andoaingo Udalak beste behin ere, dei egiten du hondakinen kudeaketa arduratsuan sakontzeko, birziklatze tasa are eta hobea lortzeko asmoarekin.



Se añadirá pedal a los contenedores de recogida de residuo orgánico de Andoain

- **Los trabajos de acondicionamiento de los contenedores marrones se realizarán entre el 14 y el 20 de septiembre y tienen como objetivo facilitar su uso**
- **Durante el verano se ha instalado el pedal a los contenedores grises del rechazo, simplificando su apertura/cierre**

En las últimas semanas se ha iniciado la incorporación de una serie de adaptaciones y mejoras en el sistema de recogida de residuos por contenedores. Durante el mes de agosto se han instalado pedales a los contenedores grises del rechazo. De esta manera, el pedal facilita la apertura y cierre del contenedor.

Entre el 14 y el 20 de septiembre se llevará a cabo la segunda fase y se añadirán los pedales a los contenedores marrones para la recogida del residuo orgánico de Andoain. Los trabajos de acondicionamiento ya han comenzado y en este periodo de tiempo se sustituirán los contenedores. Se han implantado nuevos recipientes provisionales de 1000 litros, que se abrirán sin tarjeta durante el cambio.

El objetivo de la decisión adoptada es facilitar a las y los andoaindarras la separación y recogida de los residuos y especialmente el orgánico, añadiendo pedales que hagan más cómoda la apertura y cierre de los contenedores.

La situación provisional tendrá una duración de una semana y el Ayuntamiento de Andoain una vez más, hace llamamiento para profundizar en la gestión responsable de los residuos con la intención de lograr una tasa de reciclaje aún mejor.

Andoain, 15 de septiembre de 2020